

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxepa Arrillaga Mendiluze

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Ameztibekoa baserrian bizi da, eta bertan eman ditu bizitzako urte gehienak. Gurasoak igeldotarrak zituen. Aitak harrobian egin zuen lana lehenengo eta obretan gero; amak esnea partitzen zuen etxez etxe, Donostian. 11 senidetatik lau gaztetan hil ziren. Joxepa amonarekin bizitzera joan zen bederatzirekin, eta 11rekin bueltatu zen etxera. Hainbat lanetan ibili da, etxeko eta baserriko zereginaz aparte: aberatsentzat gobara egiten, etxeak garbitzen eta besteren ganaduari kontu egiten... Emagin ere bai, ama bezalaxe. Erretiroa hartu arteko azken urteak Buenavistako sukaldean egin zituen, ontziak garbitzen. Baserriko lanetan fin zebilen oraindik elkarrizketa egin genionean ere.

Zintak

DON-062

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-17
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Familiaren jatorria

- **Erref:** DON-062/002
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez daki segururik non jaio zen, Benta Alegren ala "palazioan". Bizi palazioan egin

zen sasoi batean, eta gero Amezti Behekoan. Zazpi senide irten ziren aurrera; lau gaztetan hil ziren. Gurasoak igeldotarrak ziren biak. Aitona-amonak.

2. Amonarekin bizi zenean

- **Erref:** DON-062/003
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Bederatzi urterekin amonaren etxera joan zen bizitzera, Ganbara etxera. Bikarioaren etxera joaten zen gauetz, dotrina erakusten zion Leonik, bikarioaren arrebak; meza liburua irakurtzen ere erakutsi zion. Korua ere garbitzen zuen, organoa eta. Sukaldeko lanetan ibiltzen zen, eta baserrian ere bai: artajorran, simaurra zabaltzen, itaurren... 11 urterekin bueltatu zen etxera.

3. Su baxua eta istripua

- **Erref:** DON-062/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Sukaldea: beheko sua zegoen. Eskuak nola erre zituen kontatzen du, bederatzi hilabetekin, eta medikuek eskuak lotu zizkietela; ondorengo ebakuntzak eta konponbide falta.</p>

4. Etxeko giroa: umezain eta aita falta

- **Erref:** DON-062/005
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bigarren senidea zen, eta umeak zaintzen egoten zen etxean. Jolasik ez zuen egiten, beti lanean. Amari atzetik segika ibiltzen zen. Ama beti haurdun, eta aita hasieran harrobian, baina gero obretan ibiltzen zen peoi, eta orduan ez zen etxean egoten. Aste osorako ere joaten zen askotan kanpora. Orduko harrobiak. Igeldoko eliza nola dagoen egina. Harrobian lanean emakume bakarra ezagutu du.

Transkripzioa

-Eta zu, zenbagarren senidia zea?

-Bigarrena. Zaharrana hil zan aspaldi. Bigarrena naiz.

-Eta hemengo bizimodua, amonakin bizitzera jun aurretik, ze gogoratzen dezu?

-Buf, umia, umia [...] izaten zan ta, umiai ipurdia garbitu! Nere bizimodua hua zan.

-Eta jolasik-eta iten zenun?

-je, je. Jolas itia zeon!

-Ez?

-Ez. Jolasa iten genun, baiño koño, gutxi. Gu beti [...]

-Beti lanian, orduan.

-Bai, ni bintzet bai.

-Ta sokasaltuan-eta ez ziñaten ibiltzen...

-Et-et-et-et. Holako gauzik ez genun guk. Sokasaltua earra umiak izaten genun guk! Ne ama difuntak tripa haundiya, ta umia txikiya eskun. Izaten zun ta nik atzetik segika ibili biher.

-Eta hemen, e, baratza ta eukiko zenuten, animaliyak eta...

-Animalia bazeon, ama aitzen zan. Aita... etxian zan ganian, ha aritzen zan, baiño... esan dizut nola ibiltzen zan.

-Aita ibiltzen zan obretan.

-Bai. Aurrena harrobin. Nik ezagutu nun harrobin. Ta ordun asko launtzen zun etxian. Baiño behin obretan hasi zanian, hoixe, alde in ta gabian etortzen zan, ingurun baldin bazan. Ta askosan, berriz, zortzin behin.

-Astelenian jun ta...

-Bai, astelen goizian juten zan ta lanbat gabian etorri, nere aita.

-Orduan, ikusi ere ez.

-Ez genun ikusi're iten askotan aitik!

-Eta ze zan: igeltserua, ala ze...

-Ez, ez. Bestela, peoya zan.

-Danetik iten zun.

-Bai, danetatik iten zun, bai.

-Orduan ze lan iten zian? Etxiak iten edo ze...

-Bai, harrobin, ta ordun etxik iten oin bezelaxe, etxiak in. Holako gauza izaten zan.

-Eta harrobiak. Hemen harrobi bat baino gehio egon zan...

-Baaiii. Harrobiya asko, hemen. Harrobi... Hemen'e, hor goi-goin'e zulu hortan'e harrobiya zan ta. Hemen behian'e zoko bat bado, harrobiya zan ta nik ezautu nitun.

-Eta zure aita nora juten zan?

-Hua, guria "en general" juten zan gora, a oain garajia o nola esaten deu, bi etxe nola dia hor, autobusak parada nola iten du, horrea. "En general" horrea juten zan.

-Ta hor ze harri klase, o ze iten zuten?

-Harriya, hor dana holakua. Holako harriya.

-Etxiak iteko harriya zan?

-Bai. Eliza... Igeldon'e eliza partia, honuzko partia horko harriyakin iña do,

Igeldoko harriakin.

-Bertako harriakin dao inda eliza?

-Bai, hemengo partia, aldare partia bai. Hiru puxketan do, e, Igeldoko eliza iña. Nik ezautu nun ermita txiki bat, aurrena. Ta geo puska erantsi ziyoen atzian, ta geo berriz aurea.

-Bertako harriakin, orduan, hemengo baserri gehienak egongo dira, hemengo harriakin...

-Bai, bai, asko. Bade mortero zikiñakin iñak'e bai, bade baiño... Mortero zikin askokin iñak'e bade, baiño gehintxona harriya hemenguakin iña.

-Jende asko ibiliko zan harrobietan.

-Bai, harrobietan, bai. Jende asko zebilen, ibiltzen zan hemen.

-Eta gizonak.

-Bai, noski! Nik emakumeik, e, ez nun ezautu... Emakumia ezautu nuna, Kamiyokua! Uain jun bihar... horren arreba izan zan.

-Harrobiyan lanian?

-Bai, izan zan.

-Bai, e?

-Bai.

5. Gobara egiteko modua

- **Erref:** DON-062/006
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gobara egiten ibili zen, beste emakume batekin; Donostiatik ekartzen zuten oheko arropa: mairidireak, kamisoiak. Ama astoarekin joaten zen, eta gero bera bila. Pardelekin igotzen ziren Igeldora. Egunean pezeta bat ematen zion emakume batek. Gobara garbitzeko modua: iturrian xaboia eman eta etxean barrika erdi batean jartzen zuten, eta ur beroa bota eta estali; hurrengo egunean "gobarrian" jotzen zuten gobara, zikinak kentzeko. Eta zabaldu egiten zuten. Bizikleta zuena zorionsua zen</p>

Transkripzioa

-Eta, bestela, emakumiak ze lan iten zuten?

-Emakumiak. Nik egixa esango dizut. Nik askotan.. nik in izandu det gobara-eiñian aitu izandu naiz. Nik klase asko ezautu ditut.

-Zertan aritu izan zea?

-Gobarak eiten. Kalera jun, ta gobara, erropa bildu. Etxea ekarri, ta garbitu. Nik ez, e; ni ibili naiz, baiño ibili naiz etxeokoa batekin, emakume batekin; horko emakume batekin.

-Eta nora juten ziñaten?

-Donostia!

-Hoteletara ta, ala etxe partikularretara?

-Etxe partikularretan biltzen zun.

-Villak eta hola?

-Bai. Holako [...] biltzen zitun, ibiltzen zun.

-Maidiriak?

-Mairidire ta "en general" izaten zun... izaten genun mairidiria, almuhera(?) eta kamisoyak.

-Kamisoiak?

-Bai. "En general" hua izate genun.

-Oheko hori... gauzak, ez?

-Bai.

-Eta zenbat ekartzen zan hona, garbitzeko, asko?

-Harek asko ekartzen zun. Goizian juten zan ama guria kalea, astua genekan ta astuakin. Eta geo ni juten nitzan haren billa. Harek eukitzen zun zea, ba oaintxe're hankakin billatuko nuke, egokitzen zuna, denda. Astuak ta egokitzen zituna zan, ta harea juten nintzan billa. Eta han hartu, hiru pardel igual izaten zitun, "en general" bi; bi baldin bazitun, bi saiheretan bana jarri astuai, lotu erdin ta ekartzen genun. Ta hiru baldin bazitun, gairian zagaldian botatzen gairun bestia. Eta hala ekartzen gairun.

-Eta tipi-tapa astuakin...

-Astuakin honea! Ta atsaldian iturriya jarriya zekan; bazekan [...] ta ni Hankamotxetik etorritako urtia zan, handik etorri nitzen urtia. Eta esan zian: "Eguneko pezta bat emango dirat". Asko zan garai hartan! Egunian pezta bat. Astian zazpi egunian, duro zillarra! Ta bi peztako zillarra askotan hartu izandu ditut nik, emakumi harek emana. Bai.

-Eta garbitu nun iten zenuten?

-Iturrin. Bai, aurrena iten genun... gobariya han holakoxea izate zan, bere askakin, e, iturriyakin. Urakin, hor. Eta iten genun bustitan jarri erropa. Eta jaboya pasa. Jaboya pasa ta eamaten genun etxea. Ta etxian eukitzen genun barrika erdi bat, holaxe barrika... Bakizu barrikak zer dian?

-Bai...

-Holakuak, goiko gairia kenduba ta holaxen, azpin zuluakin. Eta han jarri pillatuta danak. Eta ura berua bota. Ura berua bota, tapatu, ta astiartian hua jotzea! Tiki-taka tiki-taka jo gobarian, osea gobarrin. Gobariya esate gairun guk honi.

-Eta zerekin jotzen zenuten?

-Bea, hartuta!

-Hartu ta... astindu?

-Bea, bai. Zikiña, nola kendu zikiña!

-Eta ur berua, eltze baten berotuta?

-Bai, bai, eltzian, ahal zan tokin beotu, ta gairian holaxe botatzen gairun gabian. Cristol esaten gairun gauz bat, jaboyen zea zan. Eta hua botatzen gairun raaa bueltan guztin, tapatzen genun, ta han eoten zan hurrengo goiz arte. Eta hori astelehen atsaldian iten genun. Astiartian gobara jotzea! Ta gobara jo, ta zabaldu! Baztar guztitan zabaltzen genun, ta...

-Zelaietan eta?

-E, bai. Zelaiean, e... lehen zan asko... estratak esaten zian. Faratak. Bidia baztarretan paratak asko izaten zian hemen. Eta parata haitan zabaltzen gairun.

-Zintzilik jarrita?

-Bai, hola bota, ta gairian. Larra gairian igual. Ta puskatu're hola iten gairun, e! Larrai tira edo... lehortzen zenian tira ta... Holaxe ibilli gea gu!

6. Besteren etxeetan lanean

- **Erref:** DON-062/007
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Emakume batengana joaten zen, behiak gobernatzera eta garbiketarako egitera, egunero. Etxeko lurra eskobillarekin igurtzita garbitzen zen, belauniko, ohola zuritu arte. Alargundutako emakume batentzat lanean ere 15 urte egin zituen, lgealdon. Amak esnea partitzen zuen, etxez etxe. Bi-hiru behi izaten zituzten. Tomatea ere eramaten zuen batzuetan, saltzeko.

Transkripzioa

-Eta hori, astian zenbat egunetan?

-Nik, e, nik aste guztiya pasa behar izaten nun han. Behi bat´e bazakan, ta harengatik ba eguneko pezta emango ziala, ta astian zazpi pezta. Duro zillarra ta bi peztako zillarra askotan ematen xixkian nei emakumi harek.

-Ta zure lana zein izaten zan, emakume harentzat behiyakin...?

-Behiya gobernatu ta...

-Jetzi ta...?

-Bai. Behiya gobernatu ta... etxea etortzen nitzen ni. Ordubete o igual pasatzen nun batian ta bestian bi ordu igual, ta bestian atsaldia igual ta... etxea etortzen nitzen.

-Eta orduan, gobara itiaz aparte, e, iten zenitun beste lan batzuk...

-Bai.

-Behiyak gobernatu ta...

-Bai, hoixe, batzuk, bai.

-Eta besterik? Ez dakit, garbiketarik ala...?

-Bai, bai. Gobara bestiakin batian garbiketara iten genun! Fregatu´re bai zea, etxia.

-A bai, e?

-Eskobillakin ta zatarrakin. Ez oain bezela.

-Eskobillakin?

-Eskobilla in, i-igurtzi in hola, ta holaxe...

-Belauniko jarrita?

-Bai hoxe, belauniko!

-Eta argizariya...

-Ez, ez, ez zitziyon argizarik garai hartan ematen!

-Ez zan ematen?

-Ez. Nik ez nun ezautu, garai hartan.

-Orduan brillua atea arte...

-Zui-zurixa eoten zan... brillua ez zun izaten. Zuriya. Ohola, ohola zui-zuriya.

-Zui-zuriya, lurra?

-Bai. Ohola. Zetan, ohola, kuartuetan ta ohola. Pasillun ta eskaillerak-ta oholezkuak izaten zian garai haiyetan.

-Orduan umetatik in dezu lana.

-Hoi bai! Hoi hala in det. Ta geo... han sartu nitzan ta geo hasi nitzan goiyen hor basarri batian... deitu zien. Alargundu zan, ta alargunak. Ta hamabost urte harekin pasa nitun. Baiño harekin pasa nitun: jatena in... behiyak zauzkan, behiyak gobernatu, azpik zeatu... holako lanak iten. Ta

bea ondo ez zeonian, beai kaso in... holako zeak iten. Hamabost urtian ibili nitzan, baiño beti ez, eunero ez. Batzutan etxian eoten nitzan.

-Etxian ´e egongo zan lana?

-Bai. Ez gutxi! Eoten zen.

-Eta etxeak gobara... zure amak-eta gobara iten zuten?

-Ez, ez, ez.

-Zure amak nahiko lan zun hainbeste umekin...

-Hainbeste umekin ta ganaukin, haik ta zeatzeko... Goizian kalea jun ta esniak partitu iten zian etxez etxe garai batian, e?

-Amak partitzen zun esnia?

-Bai, bai, etxez etxe.

-Eta nola juten zan? Astuakin...

-Astuakin.

-Eta ze: bi marmita ala...?

-Ahal zan... zeona. Zeona.

-Zenbat behi izaten zian?

-Bi o, bi o hiru eukitzen giñun. Amak bakarrik ze eukiko zitun ba! Geok iteko gauza jarri giñan bitarte. Geo hobeto, gauza jarri giñanian.

-Eta bera juten zan esnia partitzera...

-Bai, ta etxez etxe, etxez etxe partitzen zun harek!

-Antiguan?

-A, bai, Antiguan. Donostira ´e juten zan. Jun izandu naiz ni ´re bea ezian. Bea haurra iteko-ta hola ta... jun izandu naiz.

-Eta arrautzak eta berdura-ta... eramaten zitun ala ez?

-Bai. Tomatia zan garayian-ta tomate pixkat, ta gero bai... gu laneako gauza jarri giñanian, bien bitartian harek gauza gutxi iten zun gajuak. Aita ez zitzaion... harrobin zabillega bai, asko laguntzen zion harrobin zabilleanian... baiño behin hasi zanian obretan... goizian jun ta gabian etorri! Bakizu ze izaten dan...

-Ta zuek bakarrik.

-Bai. Halaxe bizitu gea gu.

7. Emagin lanetan

- **Erref:** DON-062/008
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Partera ere ibili zen, emagin. Azken umea jaio zenekoa kontatzen du, nola bidali zuen ospitalera. Amona eta ama ere hala ibiltzen ziren, baserriz baserri. Erditze denak ezberdinak izaten dira. Nondik heldu, indarra egiteko.

Transkripzioa

-Nik opizixo asko itut. Ni partera ere ibili naiz.

-Portera?

-Partera.

-Partera? A, bai, e?

-Bai. Nik azkeneko haurra ba al dakizu nola bialdu nun? Krinikara, zera.. Txilborra haurrai... ni juteako jayo zan, txilborra tela puska batekin, zubi

batekin in umiai ta haur-laguna lotu zeakin, lixtoiakin iztarrian amai, ta bialdu, in izandu det nik. Azkenengua goguan det.

-Eta nola hasi ziñan ba emagin?

-Amonak. Amak. Amonak. Amona hola ibiltzen zan, etxez etxe ibiltzen zan amona neria.

-Emagin bezela?

-Bai. Enfermera, zea bezela. [...] koño... haurrak, parturako zea, nola izaten dira? Hoik bezela ibiltzen zan asko. Askotan ibiltzen zan hemen, basarrin, hemen garai hartan ez zan zeik eta. Eta harek beti: "Aizan, etorri hai!". "Aizan, hau, aizan hou!", eta atzetik segika, txakurra bezelaxe.

-Eta hola ikasi zenun, orduan, begiratuta...

-Bai, nik holaxe ikasi nun, bai.

-Eta ez zan errexa izango ba hori?

-Errexa? Hoixe errexa dala! Hoi baiño gauza errexagoik!

-Bai? Baiña konplikaziyuak ere egoten dia, ez?

-Bai, baii. Partua da oso... hamarrek hamar diferente ditu. Hamarrek, hamar diferentiak.

-Eta ze pauso eman behar dia?

-Ze pauso eman bihar dian?

-Iteko dagonian ya, deitzen... nola abixatzen zuten?

-Ui, auzuak eta izaten giñan ta etxian asko ta...

-Etxera etortzen ziran, esatera?

-Bai. Azkenekua, horkua, ujuka gabian. Juteko ta juteko, ta ama... Ama juteko. Ama're ibiltzen zan, ta ama orduako izorratu xamar zegon ta esan zian: «Jun hai, neska, jun hai, ez den ixilduko ta!». Gizon bat, gizona etorri zan ta andria goitik ujuka. Jayo zala ta juteko, jayo zala ta juteko, jun nintzan ta halaxe harrapatu nun: jayua harrapatu nun. Ta azkenegua huaxe.

-Eta jaio aurretik harrapatuz gero ze...

-Lagundu in bihar pixka bat...

-Zer iten zenuten? Ura ta jarri?

-Preparatu ta zai egon ta... indarra iten zunian, hoitatik fuerte-fuerte heldu, ta doble indar iten due ta.

-Hortik helduta?

-Bai, hoietatik heldu, ta doble indar iten da. Hua in ta holako gauzak!

-Eta palangana baten ura jarri eta holakorik ez ala bai?

- Ez, ez. Jayo arte ez.

-Jaio arte ez?

-Jayo arte ezer ez.

-Eta zerbait ematen zitzaion, belarren bat...

-Ezta ezer ez.

-Ezer ez. Dana natural.

-Dana natural, garai batian dana natural zan.

-Ta irtetzen laguntzeko umiai...

-Esan dizut pa! Indarra iteko...

-Bai, heldu...

-Fuerte heldu! Iteko.

-Eta tira?

-Tira ez. Sekula, nik bintzat sekula ez.

-Bakarrik irten behar zun?

-Bai. Bakarrik ertetzen zan.

-Eta gero, behin e..

-Oain'e tira ez det uste iten duenik, e. Tira... Katxa... burni batzukin akaso zabaldu o... natural zabaldu pixkat bai, baiño tira, tira ez. Tiratzi hoi oain, len esan detena...

-Eta ez bazun irten nahi, ze iten zan?

-Len bultza pixkat eta, hau in ta tripa igurtzi ta... holako gauzak!
-Eta normalian irteten ziran, ez ? Gehio ala gutxio kostata...
-Bai, bai. Normalian. Nei behintzat asko bai. Etxian ikusi ditut lau, amenak. Amen partuak lau ikusi nitun. Hemen [...] basarri hontan beste bi. Bestia, azkenengua, esan dizut. Hua're nunbait emakumia're... gizona etxian ez zun; launbata zan, ez zait aztutzen, eta gizona falta! Umia bazun, orduako alaba bat bazakan txikiya, eta hua etxian, ta bea apuruan auzua etorri zan. Ta auzua etorri zan ta auzokuak gerena, gugana!
-Ta jun ziñeten laguntzera.
-Bai, bai.

8. Zilbor-hestea eta haur laguna

- **Erref:** DON-062/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Umea jaio ondoren, olio epelarekin garbitzen zuten. Ez zen buruz behera jartzen. Goraizeekin mozten zen zilbor-hestea, doblatu eta lotu. Haur-laguna barruan hustuz gero, asko sufritzen du emakumeak. Bota egiten zen haur-laguna gero, edozein tokitara.

Transkripzioa

-Eta behin umia jaiota, ze, nola garbitzen zan?
-Guk garai batian oliyo epelakin garbitzen genun, ta geo oain berriz txorruan jarrita, hanketatik tiraka garbitzen due.
-Bai, baiña lehen ez zan hola...
-Ez, ez.
-Buzur behera ez zan jartzen umia, ez?
-Ez, sekula ez det ikusi nik! Oain bai, oain ikusi det, oain gertatu naiz. Oain ezagunen bat badet ta juten banaiz, han baldin banaiz... ta alerta eoten naiz. Oain iten due hartu hanketatik eta zintzilik jarri, ta ur epelakin garbitu.
-Eta lehen, oliyo epelakin.
-Oliyo epelakin aitzen giñen gu.
-Eta zilbor-hestea nola, zerekin mozten zan?
-Guaiziakin!
-Guraiza normalak ziran, ala...
-Guk etxian edozeiñekin ibiltzen giñena ibiltzen giñun guk.
-Moztu eta zer?
-Holaxe doblatu. Hoik utzi. Umiak hemen daka txilborra, ta hemendik honeaiñoko hestia utzi. Hemendik moztu, ta hesti hoi doblatu, ta lotu.
-Lotu, nola? Korapillua?
-Bai, bai, eozein gauza.
-Ala josi?
-Josi ez, bueltatu ta lotu. Hola bueltatu mutur hau... Hau, honek bueltatuko balitzayoke bezela bueltatu, ta lotu. Lotzen genun hariya, aproposa izaten zana. Zunak, etxian zunak "ya bien", eta ez zunak, berriz, ahal zunakin. Esan dizut ba zekin, zatarrakin bialdu nula nik hua. Eta geo handik aurrea

haur-laguna. [...] esaten diyot nik, zeatik ez genaukigun, igualak izaten dia ta. Hua iten zan... hua hustutzen baldin ba barnen, dayola egoten da ta hustutzen baldin bada sekatzian txarra geatzen da, ez da ertetzen. Ezta biher bezela ateatzen. Ta emakumiak in bihar izaten du asko sufritu; ganaduak bezelaxe, berdiñ-berdiñ. Eta hua, nik iten diyot... esan ziaten behintzat, amonak eakutsi zidan lotzen: "Lotu iyon, ez daiela hustu". Nola zikiña izaten dan... dana zikiña nola izaten dan, ura ta odola ta zikinkeya nola izaten dan hua... "Ez ezan utzi, lotu iyon". Lotu iten genun.

-Eta lotu nola?

-Bueltatuta. Berriz hestia haundiya izaten baita hoi. Aman zeatik honeaiñoko zea, heste haundiya izate da ta. Umiai pixkat lotutzen diyozu moztuta, ta bestia, luzio nola geatzen dan, hua berriz zeatuta: doblatuta.

-Eta haur-laguna... gero horrekin ze iten zan?

-Batzuk ondo iten due, beste batzuk berriz igurtziz-igurtziz tira-tiraka kendu in bihar izaten zayoe.

- Eta gero hori ze iten zan, bota?

-Bai, bai bota.

-Baiña nora? Lurperatu?

-Eozein tokita, bota!

-Edozein tokitan.

-Eozein tokitan botatze zan.

9. Atsolorrak: jaioberria bisitatzen

- **Erref:** DON-062/010
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>"Atsolorra", haur jaioberria bisitatzeko ohitura. Inguruko baserrietako emakumeak joaten ziren, meriendatzera, opariarekin: dirua, jana, arropak... Oso umetan hasi zen bera atsolorretara joaten. Atea zabalik egoten zen baserrietan.</p>

Transkripzioa

-Eta gero, bazeon ohitura, haurra jaio eta gero, inguruko baserrietatik bisitan juteko?

-A, bai. Bai, bai. Garai batian bai.

-Nola zun izena horrek?

-Atso-lorra.

-Atso-lorra?

-Bai. Auzoko andre, atso guztik etortzen zien, meriendatzea etxea. Bixita iten zuen, ahal zuena ematen zuen, beren gauzak iten zituen ta... atso-lorra.

-Zer eramaten zan, janariya ta?

-Bai. Jatenen bat... merienda ematen zitzaion. Txokolatia o eozein gauza.

-Eta hori umia jaio ta zenbat denborara?

-Zea, ez dakit ba... gurian bost egunekin o zazpikin ta hola izaten zian ta... ez dakit. Ahal zunak ahal zun bezela iten zun.

-Eta orduan eguna jartzen zan, ta ingurukuak... eta emakumiak bakarrik.

-Bai, emakumiak bakarrik.
 -Eta nun elkartzen ziñeten?
 -Etxian.
 -Ganbaran ala...?
 -Gu hemen, ba tokiya bazan hemen! Hemen bazan tokiya!
 -Eta egun hortan zer, gizonak kanpora?
 -Bai, guria behintzat bai, ez zan arrimatuko! Guria behintzat bai.
 -Eta umiandako erregalorik-eta ekartzen zan?
 -Bai. Bai. Ekartzen zuen. Etortzen zianak danak ekartzen zuen zeoze.
 -Jatekua bakarrik ez, orduan. Igual erropatxon bat edo...
 - Erropatxua o diruba o, danak ekartzen zuen zeoze.
 -Eta asko elkartzen ziñeten? Inguruko baserri guztietakuak?
 -Bai, bai, bai ta parienterik baldin bazan, izebik baldin bazan, ta lehengusua bazan, ta emakumiak asko.
 -Emakumiak eta umiak ere bai, ala?
 -Ez, ez... umeik ez. Bueno, ni neroni egiya esan gaztetatik ibiliya naiz, e, atso-lorran! Ni bai! Hola bi edo tokatu... bata Arkaitzan tokatu zan ta bestia zean ta... amak esan zian: "Jun hai holako tokita!". Ta ni harea ta bea bestea.
 -Ta han meriendatu, berriketa...
 -Bai. Ta etxea.
 -Orduan, harreman haundiya zegon...
 -Hemen, jesus, bai! Oain bezela ez pentsatu atia itxia egon bihar zenunik garai hartan, e. Atia zabalik egoten zan ordun. Oain gaude jarrik hola.
 -Orduan atia zabalik lehen.
 -Bai, bai, bai. Garai hartan atia zabalik zan.

10. Umeen bataioa eta linboa

- **Erref:** DON-062/011
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Mutilak lehenago bataiatzen ziren neskak baino, baina azkar denak ere, hiltzen baziren linbora ez joateko. Ume asko hiltzen ziren orduan; amak ume bat nola galdu zuen kontatzen du. Baserrian neskek lan gehiago egin zuten mutilek baino. Maiorazgoa, normalean mutila.

Transkripzioa

-Eta umiak bautizatu, jaio eta zenbat denborara? Axkar, ez?
 -Bai. Mutilla bazan lenuo, neska bazan... ba, hiru-lau eun igual pasatzen zian.
 -Eta zeatik ba hori?
 -Ez dakit ze...
 -Ohitura?
 -Ohittura zan behintzat hemen. Mutilla baldin bazan, ahal zan azkarrena!
 Ta neska baldin bazan... ña, bi o hiru eun pasatzen zian. Baiño asko ez, e. Asko ez zan pasatzen, zeatikan esaten zuen... apaizak sermoyetik uju iten

zuen bataiyatu be hiltzen bada, zan, zera juten ziela, linboa juten ziela, ez zuela ezer ikusten. Ta jendiak bela bataiatzen zun. Bataiatu bela iten zan.

-Bela, lehenbailehen, ez juteko linbora, ez?

-Bai.

-Baiña garai hartan hiltzen zian umiak...

-Asko, asko, asko juten zan. Garai hartan asko juten zan, esan dizut ba ni neroni bi ahizpa eta bi anaya jun zitzaixkian. Baiño bat jun zitzaian o jun zan... Egiya esan, kalea jun zan ta kaletik sentitu zun ta etxera etorri zan nolabaite, ta hor [...] basarriya zan, ta baserriko gizonak, zean ekarri zun, gurdin ama etxea. Eta zapata... afragata beltzak, ondo goguan dauket, erantzeko esan zian, askatzeko. Askatzen ai nitzela, burutik behera in zidan. Hua hil in zan. Hiru-lau egun pasa zitun, baiño... hil in zan.

-Ze pena...

-Bai. Ta nexka zan.

-Eta jendiak nahiago izaten zun mutilla jaiotzia neska baiño ala...?

-Eeez, eez, ez. Hoi ez. Holakoik ez zan.

-Ez zan esaten baserriko hobia izango zala mutilla, eta holakorik?

-Ez, garai hartan... gure etxian basarrin mutillak ez due ezer'e in. In zuena basarrin, neskak in zuen.

-Eta maiorazgua mutilla izaten zan?

-"En general" bai.

-Zaharrena neska izan arren... mutilla.

-Bai. Bai. Zaharrena neska izanatik bai. Ta bestela, berriz, gurasuak uste zuena. Gurasuak ze nahi zun, hua.

11. Bataioa eta besoetako haurrak

- **Erref:** DON-062/012
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:38:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Besoetako lau haur ditu; lehenengoarekin, zapia, kandela eta ogia eraman zizkion apaizari. Ama normalean ez zen bataiora joaten: ama pontekoa eta inudea joaten ziren. Denborarekin, dirua eskatzen ere hasi ziren apaizak bataiorako. Azkenengoa, berriz, debalde.</p>

Transkripzioa

-Eta bautizatzeke umiak, bazeon e... ze iten zan, elizara..?

-Nik baitut lau, bataiyatuk, lau, jasuak, ne besotakuak.

-Lau?

-Ba lau. Ta lendabizikua bataiyatu nuna... eman behar izaten zan elizara apaizai paiñelua, zea, kandela eta ogiya.

-Ogiya?

-Ogiya, ogi ttiki bat, goguan det. Lendabizikoa bataiyatu nunian haikin bataiyatu nun. Biarrena bataiyatu nunian esan zian dirua bihar zala, diruba. Milla peztako bat eman nun nik ordun. Hurruna, hiruarrena bataiyatu nunian, Antiguon zan, ta Antiguon harek´e diruba eskatu zian. Diruba eman niyon. Eskatu zuna eman in niyon, ixil-ixilik. Hirugarrena batez, ezer be.

-Ezer be?

-Bai.
-Orduan, nola aldatu dan, ezta?
-Bai.
-Eta lehenengua Igeldon izan zan?
-Bai.
-Igeldoko...
-Bai, Igeldon bataiyatu nun.
-...elizan?
-Elizan, lendabizikua hor bataiyatu nun.
-Eta ama juten zan ala...?
-Ondo baldin bazeon, baiño “en general” ama... ama “en general” oyetik jaikitzen ta zean hasi baiño leheno bataiatzen genun guk behintzat. Ama ez, ama ez...
-Orduan juten zan...
-Amandria, amandria... umia jaso bihar zuna eta iñuria izaten zan. Iñuria, umia eaman eta ekarri harek iten zun, iñuria...
-Eta iñudia nor izaten zan?
-Eozein! Geok nahi genuna! Horko andria're hola ibiltzen zan, ta izeba're hola ibiltzen zan, ta eozein. Eozein, iñuria eozein.
-Eta bataiyua ze izaten zan, oso goiz ala...?
-Esaten zuen garaiyan, atsaldian...
-Goizian ala...?
-Eguardin igual, atsaldian igual. Garai hartan bataiyua hoixe...
-Igeldon?
-Hoi bai, Igeldon. Nei behintzat hala tokatu zait. Igual.
-Ta ogiya zer zan, apaizandako? Ala bedeinkatu iten zan ala...?
-Apaizai ematen zitzaion, nik ez dakit ze iten zun harek! Hoi ez dizut esango. Paiñelua, kandela eta ogiya. Lehendabizikua bataiyatu nunian, jaso nunian haik obligatu zixkian ta haik eaman nitun nik. Bigarreguakin, berriz, esan zian diruba; neonek borondate [...] nuna emateko. Milla peztakua eman nun. Ta hirugarreguan ez dakit zenbait, Antiguon zan ta han ordun... Antiguon, Cruz Rojan gaiñea, hemen, etxe hortan; o Cruz Roja ez, Matias o zer da... autobusak-ta parada nola iten due, zer da hoi? Nola dun izena... [...] Monjak-eta eoten dia behintzet. Hor, Antiguon zea ai zian, obra zeon. Ta hortxe bataiyatu nun, genun. Ta hor esan zian diruba emateko eta diruba eman nion. “Y el”... azkenekua, berriz, ez. Debalde. Igeldon. Hau... Igeldon.

12. Apaizak

- **Erref:** DON-062/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:09. **Bukatu:** 00:39:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizari opari asko ematen zitzaizkion. Apaizak: don Basilio, don Balentin, don Fabian...

Transkripzioa

-Ta lehen apaizari gauza asko ematen zitzaion, ez?
-Bai. Nei apaizak...

-Arkumia ta...
-Arkumeik ta holakoik guk ez diyou eman...
-Baiña batzuk igual...
-Bai, emango ziyoen, noski. Emango ziyoen. Nik apaizak ezautu nitun baatzakin, atxurrian. Nik hala ezautu nitun.
-Eta ze apaiz ezautu zenitun zuk? Nola zuten izena?
-Ne apaizak, nik ezautu nunak, batek don Basilio, nei eskola eakusten o zean ibiltzen zana. Haren arreba, bai, anayak. Ta bestia... nola zun izena? Ahaztu ´e in xaixkit! Don Basilio, ta ez dakit ba bestia nola zan. Igeldon bertan hil zan, gaiñea. Ez dakit... ez naiz ba goatzen. Geo hurrena zan, Antiguoko hua ´re egondu zan... Don Balentin Antiguokua ere egondu zan batzu... denboa pixka batian. Geo hurruna don Fabian. Don Fabianek urte asko pasa zitun. Ta geo hurruna oain pasa dian bi hoik /biyoik/, oaingo bi hoik /biyoik/. Oain hirugarrena, ez dakit hau ze izango deun.

13. Eskola

- **Erref:** DON-062/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:40:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara gutxi joan zen, denera 40 egun ere ez, maistra zahar batekin. Ez zen zorrotza. Mutilak eta neskak denak batera, adin ezberdinetakoak. Damaxa zen maistra.

Transkripzioa

-Eta zu eskolara jun ziñan?
-Nik eskolan berrogei eun pasa gabiak izango ditut. Juntatu eunek, eta berrogei egun pasa gabiak izango ditut, ez det bate gezurrik esango, e! Nik berrogei eun pasa...
-Eta, e, han maistra...
-Maixtra zahar bat genun.
-Nola zun izena?
-Ez dakit ba, umia, ezin dizut esan.
-Ta ze, zorrotza... zorrotza zan, ala?
-Ez, nekin behintzat ez. Nekin ez zan [...]. Egiya esan, e. Bazekin nere berri ta. Ez zan izandu.
-Jende asko egongo zan ez zana jutun, baserriko lanak...
-Bai, eta garai hartan gaiñea mutillak eta neskak danak baten ibiltzen zien.

-A bai, e?
-Nere gazte denboran bai.
-Ta adina? Adin ezberdiñetakuak elkarrekin?
-Bai.
-Bai?
-Ordun bai, ordun bai. Damaxa zun izena, hara, oaintxe goatu zait, Damaxa. Xar-xar bat, flaku-flaku bat. Soltera zan, gaiñea.

14. Baserrian eta Buenavistan lanean

- **Erref:** DON-062/015
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Artajorran taldean egiten zuten. Behiak ere zaintzen zituen, belarra ebaki... Buenavista hoteleko sukaldean egin zituen azken urteak, ontziak garbitzen. 60 bat urterekin hasi zen han.

15. Hildakoak zaintzen

- **Erref:** DON-062/017
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:42:53. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Etxean ez zuten otoitzik egiten, baina norbait hiltzen zenean, ama arrosarioa erreztatzen joaten zen. Misterioak. Gazteak, berriz, gaubeilan egoten ziren, hildakoarekin. Bizkarrean eramaten zen hilkutxa, elizaraino. Abitua jantzen zuen iloba zaharrenak, emakumeak, lurrerainokoa. "Mantuba" esaten zitzaion. Argizaiolak. Erresponsoak ateratzen ziren, urtebetean. Lutoa.</p>

16. Latinezko mezak

- **Erref:** DON-062/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Latinezko mezak ezagutu zituen. Apaiza aldarera begira egoten zen, bizkarra emanez. Bezperetan, arrosarioa. Garizuman, dirua ematen zuenak ez zuen baraua egin beharrik: "buldak".</p>

Transkripzioa

-Eta zuk ezautu dezu latinez... latinezko mezarik?

-Bai.
 -Bai?
 -Denboa batian ipurdiya emanda, gaiñea, meza! Oain sikiera kara ematen dizue. Ipurdiya ematen zuen mezetan.
 -A bai, e? Apaiza beste aldera begira?
 -Bai, apaiza aldarea beira, ta ipurdia gui.
 -Eta latiñez zuek entenditu, ez zenuten entendituko...
 -Keba... Ezta ezer'e.
 -Hantxe eon, ez?
 -Eon!
 -Eonian.
 -Eon. Holako gauzak iten giñun guk.
 -Eta e, igandero-igandero mezetara.
 -Bai. Atsaldian bezpereta' re bai.
 -Bezperetara ere bai?
 -Errosaiyua!
 -Eta gero Gabonetan-eta e, ez dakit, egoten zan meza berezirik? Gauerdiko meza bat egoten da, "misa del gallo" edo...
 -Hemen ez, garai hartan ez. Ez.
 -Eta Garizuman?
 -A bai, orduan Garizuma bai. Garizuman beti sermoiya han ta sermoiya hemen.
 -Eta baraua in bihar Garizuman?
 -Bai. Baiño diruba ematen bazenun ez, [...].
 -A bai, e? Orduan, dirua eman ezkerro barautik libratu?
 -Bai, bai. [...]. Hala iten zan, bai. Buldak esaten zitziyon paper bana, paper batzuk izaten zian, ta haik eosten baldin baziñun, haik pagatzen baldin baziñun... dana libre zenun.
 -Eta bestela, ezin zan jan haragirik...
 -Ezin zan jan haragiyik eta ezin zan jan gauza asko.

17. Txerri hilketa eta odolkiak

- **Erref:** DON-062/019
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Txerria hiltzen zuten urtero. Osabak. Erre egiten zuten, eta puskak kutxa batean sartu, gatzituta. Odolkiak nola egiten zituzten. Tipula, porrua... Egosi, eta jostorrazarekin ikusten zen puntuan zeuden ala ez.</p>

18. Txorizoak egiten

- **Erref:** DON-062/020
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Txorizoak ere egiten zituzten, txerri giharrarekin. Piper hautsa. Hesteak bete eta egosi egiten ziren pixka bat; gero, lehortzen jarri.

19. Beheko sua

- **Erref:** DON-062/021
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Beheko sua: "leatza" (laratza), neskamea, auspoa, brontzea... Lehenengo, denek ontzi batetik jaten zuten. Babarrunak ia egunero, edo gisatua bestela. Arrain gutxi jaten zuten.

Transkripzioa

-Lehen esan diazu, baiña beheko suan ze gauza erabiltzen zian? Ze... nola zuten izena beheko suan erabiltzen zian gauzek, ba ez dakit...

-Leatza. Esaten giñun hoixe zea bat, gauza... buelta iten zuna... burniya eo... erretzen ez zan holakua. Eoten zan, neskamia esaten giñun. Hola pendulo haundi bat, kate haundi bat. Kati hartan zintzilika jarri hua, eta...

-Neskamia?

-Neskamia hurruna, eta neskamian gaiñian jartzen giñun kazuelak eta padera eta... gauzak.

-Eta ze izaten zian, burdiñezkuak ala ze...?

-Bai, bai. Burdiñezkuak zian, burnizkuak zian, bai. Erretzen ez zienak.

-Eta erabiliko zan hauspoa ere bai, ez?

-Bai, hua sua itzartzeko. Auspoa. Oaindik eongo da /eongoa/ gu etxen, behien.

-Eta gero atzian, hor... plaka bat edo zerbait paretan kontran...

-Ez.

-Paretan ez?

-Ez, losakin.

-Ez zikintzeko...

-Zikindu? Earki beztuta eoten zan gurian!

-Ez dia egoten hor metalezko...

-Bai, bai, batzutan eoten dia. Brontzia eo esaten giñun, han hua eoten zan. Hua eukitzen giñun paetian. Atzeko kontra, tximiniyian atzekontran.

-Eta lapikua... e, bueno...

-Bai, hoi ta lapikua esaten giñun ba... Goitik eoten zan... neskamian eoten zan zeakin, hari katxarruoi.

-Eta laratza?

-Laratza hua. Bat neskamia o esaten zitzaiyon, han goian eoten zan zea haundi bat, lotuta, kation mouko bat. Geo hurruna eoten zan handik behera beste gauz bat; hua zea, leatza o. Hua. Eta geo hurruna neskamia... neskamia eoten zan jendia o zea, gauzak jartzeko.

-Eta danboliña erabiltzen zan?
 -Ez, dana bat, dan-dana bat. Izena diferente esaten zitzayon, baiña dana bat. Batek esaten zion danboliña, bestiak esaten ziyon neskamia, bestiak esaten ziyon ez dakit zer...
 -Baiña gaztaiñak-eta...
 -Erretzeko?
 -...erretzeko, ez zenuten erabiltzen?
 -Ba gaztaiñak-eta ibiltzen da... erretzeko ibiltzen genun zea bat, padera mouko katxar bat. Han zea jarri, gaztaiñak, ta zeatzen zien.
 -Eta jateko, mahaian-eta, ze... bueno, kubiertuak-eta ze izaten zian, egurrezkuak?
 -Ez, ez.
 -Ez? Metalezkuak?
 -Nik behintzat metalezkuak ibili itut. Gue etxian, gutxi baiño hala ibili dia.
 -Eta babarrunak ze ateatzen zian, hola, ontzi batea ta...
 -Bai.
 -Denak bertatik jaten ala bakoitzak bere plateretik?
 -Aurrena dana bertatikan jaten zan: gehiena jaten zuna ondo, ta gutxiña jaten zuna izorrai.
 -Espabilatu in bihar.
 -Bai. Ta geo platea eosteko moduba bazan ta, hazi nitzanian, ordun zeoze!
 -Bestela, babarrunak egunero?
 -Bai, "en general". Babarruna eo bestela zea, esto... goatzen bazait esango izut.
 -Garbantzua?
 -Barbantzua ere bai, lenteja ´re bai... ibili izandu diteu hoik danak. Gixauba!

 -Gixaua.
 -Bai. Haragi puska haundiak eltze zar batian sartu, euki eosten, ta geo hua patataz bete, ta poliki-poliki-poliki in, ta primeran.
 -Ta hemen, e, arraia ta asko jaten zan?
 -Mmm. Arraiya zeorrek jun ta itsasoa jun ta ekartzen ez baziñun, txikin batzuk o zeak, baiño gaiñontzian hemen arraiya...

20. Arroketan, lapak eta arrain txikiak

- **Erref:** DON-062/022
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 01:00:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantza motak » Herraldeko arrantza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Anaiarekin joaten zen arroketara. Bikote bati pastelak nola lapurtu zizkioten, eta gero damutu. Lapa bila eta arrain txikiak, kanaberarekin. Amua, kakoa. Lapak prestatzeko moduak: tortillan... Lanpernetan gutxi ibili zen, arriskutsua zen eta.</p>

Transkripzioa

-Zuek juten ziñaten arroketera-eta?
 -Bai. Anaiya difuntuak eta biyok in izandu deu... Jun gea arrokata, pareja

bat etorri da arroka, baakizu, denboapasa. Ta in zituen pastelak, ez dakit, goiko zean utzi... arkaitzetan, goiyen. Ta gu etxea, ta gose bat bagenekan ta: "Ostu ite yeu!". Jan genun birian, etxea bitarte jan, baiño geo ez giñan earriyak earki ibili, e?

-Ez? Gero damututa?

-Bai, geo damutu... Ze esango ote zituen haik, ta hoixe... hoi´e in izandu deu arroka junda...

-Baiña gosia daonian...

-A, bai.

-Momentuan, e?

-Ezta goatzen!

-Tentaziyo haundiya da hori...

-Ezta goatzen! Ezta goatzen! Ezer...

-Lapa billa-eta ibiltzen ziñaten han, ala?

-Bai. Lapak eta arrai txikiya "en general" behintzet. Karraspiyo ta holako gauza.

-Eta nola harrapatzen zenuten arrai txikiya?

-Kaiñabelakin.

-Kaiñaberakin?

-Bai.

-Orduan, etxian bazeon kaiñabera.

-Bai. Oaintxe´e eongo dia.

-Eta amu bezela ze jartzen zenuten?

-Amua bezela izaten zan holaxe gauza txiki bat, jostorratzen mouko batzuk izaten zien, doblatuta ta aproposak izaten zian, saltzen zian hoik. Eta haik jartzen giñun kordelian [...] lotuta, eta hua iten genun jaten eman, jatena jarri muturrian eta... itsasoa bota. Ta hua jatea juten zianian peatzen zien beak, kakua nola izaten zun, kakun, hasten zianian tiraka ta ezin atea beak. Peatu iten zitziayon ta... ateatzen giñun kanpoa ta fuera! Ekartzen giñun ta... lixto.

-Eta zizaria edo ze jartzen zenuten amuan?

-Ba batzutan txitxaria ta beste... eozer gauza! Lapak igual!

-A bai, e? Lapak´e bai?

-Bai. Jartzen giñun.

-Ta lapa asko zeon?

-Bai, ordun bai, garai hartan bai.

-Eta ze iten zenuten gero? Lapak nola prestatzen zian, jateko?

-Jateko? Batzutan ondo garbitu ta salda busti. Piparrakin puskatekin ta tipulakin ta kaxuela jarri ta benga, jatea! Azala alde batea ta bestea bestia... Ta beste batzutan, berriz, kendu zea, axala; mamiya bakarrik jarri, tortilla in... goxo askua!

-Bai, lapa tortilla ez da txarra izango!

-Hoik danak iten giñun, garai batian.

-Eta lanpernetan-ta ere ibiltzen zan jendia...

-Ba gu... gu gutxi. Gu gutxi. Tokatu ezkeo ekartzen giñun batzuk, baiño... peligrasua izaten zan lanperna; zuletan sartu biha izaten zan ta guk ez gendun arrixku hua nahi izaten... Ez. Ibiltzen zan jendia, ibiltzen zan lanpernetan. Gaur ez dakazu ibiltzeik, e!

-Ez, ez...

-Gaur ez do ibiltzeik, lanpernetan. Noiznahi dakizu [...] kendu ixkiela ta iñez majiña bati aitzen diyuet, lanperna.

21. Bainuaren ordua eta ura

- **Erref:** DON-062/023

- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:00:04. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bainatu ere egiten ziren arroketan. Etxean dutxarrik ez zuten, eta behien atzean garbitzen zen, barreñoian sartuta. Iturria zuten etxe ondoan. Ura ona zen; orain ez, kutsatu egin zen obrekin.

Transkripzioa

-Arroketara baiñatzera-ta juten ziñaten, ala ez?

-Bai, baiña geo etxea, etxea jun ta etorri. Etxea etortzeako zea, berriz ustelan baiño izerdi haundiyagokin ta zea, nazkagarriyo.

-Igeri...?

-Hemen ez, holakoik ez.

-Igeri ez zenun ikasi?

-Ez. Hemen, egiya esan, nola ez genun zeik, lutzik ta holako gauzik... Ni... gu... behiyen atzian. Ni behin baiño gehiyotan hortxe garbitu izandu naiz. Barriñoiyian jarri zea, ura, barriñoi... sartu han, erdi larrubixik eta behiyen atzian.

-Behiyen atzian.

-Behiyen atzian. Bai.

-Orduan ura... etxian bazenuten ura? Ur korrientia?

-Bai, bai. Iturriya hortxe genun, iturriya hor. Ta iturriya zan... aurrena genun tubu bat; hemen nik ezautu nunian ura zeon, eta ura garbiya. Hirurogei ta gehiyo urtian ur hua ean deu guk. Ta zeatu ere bai. Eta horrako villa hoik in zian; oain konbentuba do, hortxe oain´e ura hor dakau guk, e... ta han, honea etortzen dan ura´re horkua da, baiño eateik ez do [...]. Villak, hor, villa hoik.

-Orduan lehen bai, ur garbiya...

-Bai, bai, bai. Urtietan, hiruoigei ta gehiyo urtian euki deu guk ur hoi, ta ean´e bai! Guk bakarrik ez, askok!

22. Anaia txofer, izotza partitzen

- **Erref:** DON-062/024
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:38. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Donostiara egunean bitan ere joan izan zen. Amarengana, anaiaren janaria eramatera... Anaia zaharrena txofer zebilen, jela partitzen, Antiguan.

23. Saltzaileak etxez etxe

- **Erref:** DON-062/026
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Arrain saltzaileak Igeldora ere joaten ziren, ohola buru gainean jarrita, oinez. Baserriz baserri ibiltzen ziren traperoak ere; oihal saltzaileak ere bai. Traperoek zer erosten zuten. Txorroskileroa ere joaten zen, bere harriarekin; txistua jotzen zuen. "Guardamontiak" ere bazeuden Igeldon; basoa zaintzeaz gainera, udaltzain lana ere egiten zuten.</p>

24. Dantzarako afiziorik ez

- **Erref:** DON-062/027
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gutxitan joaten zen dantzara. Ez zaio inoiz gustatu. Igandero musika zegoen plazan. Benta Alegren ere erromeria egoten zen. 13 urtean mutil batekin ibili zen, baina hura ere bukatu zen, eta ez da ezkondu.

25. Zapia jartzeko moduak

- **Erref:** DON-062/030
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:08:34. **Bukatu:** 01:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Zapia buruan duela ibili izan da beti. Garai bateko amonek zapia nola janzten zuten erakusten du. Zapia beltza izaten zen; amantala ere bai, esne partitzera joateko. Lanerako, abarkak.

Transkripzioa

- Eta ikusten zaitut buruan paiñe... buruan zapiyakin.
- Ni beti hala ibiltzen naiz.

-Beti? Eta lehen, lehen e...
-Ni beti.
-Eta lehen zapi erabiltzeko ohitura gehiyo zeon, ezta?
-Bai.
-Oin ez da ikusten asko...
-A ni nola aitzen naizen...
-Umetatik jartzen zan zapiya ala gero?
-Gero, gero, bai.
-Hori, zenbat urtekin jartzen da zapiya edo...?
-Ez dakit. Ez dizut esango. Lehen, garai batian holaxe jartzen zian, hemendik behetik gora...
-Eta koloria?
-Beti hau, klasi hau.
-Beti hori, klase hori?
-Bai.
-Aaaaaaaa.
-Hola jartzen zan garai batian, nik beste aldea ibiltzen det baiño... hola.
-Hola jartzen zan, e?
-Bai. Amonak-eta hola...
-Amonak-eta beltza, ez?
-Bai.
-Ze honek badazka...
-Bai, pintxorrak dazka... Holaxe.
-Aaaa... ikusi.
-Gizonak txapela eta emakumiak zapiya, hola.
-Bai.
-Eta hori euzkiyandako eta...
-Bai, danatzat.
-Danantzat, ez? E... neguan berotu ere ingo du ta...
-Jesus! Bai.
-Eta amantalak-eta... amantal beltza erabiltzen zan?
-Bai, amantala beltza ibiltzen zan, hor badakat nik oaindik, lehengon batian ikusita nun maletan han zeola.
-Amantal beltza ta...
-Esne partitza juteko ta...
-Bai, beti beltza?
-Bai.
-Ta poltsikuekin?
-Bi patrikakin.
-Bi poltsiko, hor e... dirua-ta sartzeko ta...
-Atzian lotu... hola ibiltzen giñen gu.
-Eta oiñetakuak?
-Oiñetakuak, "en general" hoik eosteko... hoik, hemen ibiltzeko, nik holakuak. Abarkak.
-Abarkak?
-Bai. "En general" bai, etxian ibiltzeko. Oin beste batzuk ibiltzen tut, etxian sukaldian nabillenan, baiño "en general" hola kanpua-ta ibiltzeko hoik. Bueno...
-Abarkak.
-Bai.
-Eta abarkak bakarrik ez zian erabiliko... beste oiñetako batzuk ere bai, ez?
-Bai, ibiltzen zian. Zapatillak esaten giñun.
-Zapatillak.
-Bai.
-Eta nola zeuden inda? Telazkuak?
-Bai.

-Telazko zapatillak?

-Bai.

26. Erosketa gehienak Donostian

- **Erref:** DON-062/031
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:11:12. **Bukatu:** 01:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Erosketak Donostian egiten zituzten; Hernanin eta Tolosan ere bai. Antiguara jaitsi, eta trenez Tolosara, feriara. Behirik ere erosi izan du; tratulariak eramaten zuen gero etxera. Izeba jostuna zuen, eta Donostian erositako oihalekin egiten zizkion arropak. Dendarik ez zegoen Igeldon.

27. Gerra etorri zenean

- **Erref:** DON-062/033
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:13:46. **Bukatu:** 01:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Gerra etortzearen errua emakumeek eta apaizek dutela dio, konfesalekutik etorri zela gerra. Jende dezente hil zuten Igeldon, ezagunak eta lagunak. Ondarretako kartzelara eramán, eta gero hil egiten zituzten. Cervera itsasontziak bonbak botatzen zituen. Jende askok harkaitz azpíetan egiten zuen lo.</p>

Transkripzioa

-Gerra garaiyan... zuk gogoratzen dezu gerra nola etorri zan?

-Hoixe, goatuko ez naiz ba! Goatuko ez naiz ba nola etorri zan gerra.

-Ta nola, nola etorri zan?

-Gerra ba al dakizu nola etorri zan? Netzako, apaizak eta emakumiak deu kulpa, gerra etortzeko. Konpensionaiyotik etorri zan gerra hemen.

-Bai, pekatuak esan ta gero...

-Pekatuak bakarrik ez, pekatuik ez zun... beak iten ez zuenik ez zuen galdetzen haik, beak iten zituenak galdetzen zituen ta... tontok, kontatu! Guk ez deu eskolik, baiño ni ez naiz horren tontua, ta tonta ´re ez hoik ze iten zuen jakiteko.

-Orduan hemen, e... Igeldon zer gertatu zan gerra etorri zanian?

-Gerra etorri zanian, zer gertatuko zan? Jendia franko garbitu!

-Jende asko hil zuten hemen?

-Bai. Jendia dezente hil zuen hemen.

-Eta ezagunak ziran?

-Bai. Hoixe ezagunak, eta lagunak.
 -Eta nola... zeinek...? Atxilotuta eraman ala...?
 -Bai, bai, atxilotuta eraman ta... ta bota, putzua bota ta fuera!
 -Ta hementxe bertan hil zituzten, Igeldon?
 -Igeldo, "o sea", kartzela bakizu nun zan...
 -Ondarretako kartzelara eraman eta gero...
 -Bai, bai. Eman ta zera bota!
 -Eta zuek beldurrik euki zenuten? Ez dakit, hemen bonbardeorik edo...
 -Hoi ezautu deu, bai. Hoi guk... Hemen egondu zan han... zea, barkua.
 -Cervera barku hori?
 -Bai, bai, hementxe, hementxe atze hortantxe. Eta beti tiratzen zitun harea.
 -Eta zuek erdiyan.
 -Gu erdin. Han bihan, guk ibiltzen genun terrenun botata... bota zun han. Kriston zulu in zun, gaiñea, bonbak.
 -Eta zuek ezkutatu-ta nun iten ziñaten?
 -Gu ezkutatu iñun ez...
 -Iñun ez?
 -Ez.
 -Etxian ez dakit koltxoirik... batzuk koltxoiak jartzen zituzten leihuetan.
 -Guk ezerrez ez genun jartzen.
 -Ezer ez?
 -Ez deu jarri guk sekula.
 -Batzuk harkaitzen...
 -Azpin-ta lo iteko... Hor harkaitzak bazian eta hor jende askok iten zun, uste det, lo. Baiño guk ez...
 -Lo?
 -Bai.
 -Zuek ez, zuek etxian egon ziñeten?
 -Gu beti etxian.
 -Zuk zenbat... orduan zenbat urte? Ez, oso gaztia ziñan...
 -Ez. Sasoi earra ordun nik. Sasoi earra ordun nekan nik.
 -Bai?
 -Gerra denboan.

28. Gerraosteko gosea

- **Erref:** DON-062/034
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:16:24. **Bukatu:** 01:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bizimodu aldaketa gerra ondoren: gosea. Ogi gutxi zuten. Artua esnearekin egosten zuten, baina artua ere entregatu behar izaten zuten. Patata eta babarruna ere bai. Errotak itxita egon ziren; mailuarekin jotzen zuten artoa. Garirik ez da izan sekula inguruetan.

Transkripzioa

-Eta asko aldatu zan bizimodua... gerra etorri aurretik eta ondoren?
 -Bai.
 -Ze aldaketa...?
 -Gosia.

-Gosia?
 -Gosia. Holaxe ogi ttiki bat. Gui hoi eman o bat´e ez eman... berdin zan.
 -Txarra. Ogi txarra, ez?
 -Txarra? Ez zan ogiya txarra. Ez...
 -Gutxi.
 -Gutxi. Txarra hua zan. Guk in izandu deu behiyak bildu, artua zelaitik ekarri, mailubakin jo ta esniakin egosi. Hoi, hoi ona da... haekin nekez gosetzen zea... gosetu. Hoi makiña bat bider, artua genun bitarte. Baiña hua´re entregatu in biha izaten genun ta /da/. Ze iten zenun?
 -Entregatu in behar izaten zan?
 -Bai. Artua ta babarruna, dana, patata ta dana. Dana. Ta beak, beak erraziyua eman.
 -Garai zaila, ezta? Gogorra...
 -Buuuf. Nik makiña bat bider... ez dakit aitu izandu dezun zuk... txerrintzat antalaporruk. Harek... haik patatak ditue... hain patatak erre sutan, kendu azala ta jan ta ibilli gea gu...
 -Bai, e?
 -Bai, ibilli beharko!
 -Gosia kentzeko...
 -Bai, hoixe. Bai.
 -Eta talua-eta iten zenuten?
 -Bai, e, genunian bai.
 -Eta errotak itxita ere egon zian...
 -Bai ba.
 -Prezintatuta.
 -Bai. Ez zakan... ez genekan eamateik hua´re, klaro. Beak bihar izaten zuen eta.
 -Orduan ezin zan artua...
 -Ez, esan dizut pa, mailuakin jota esniakin egosita eaten genun azkeneako guk.
 -Eta zuek ogirik in dezue sekula etxian?
 -Ez.
 -Ez? Hemen ez zeon garirik? Inguru honetan?
 -Ez, ez, hemen ez. Hemen sekula ez da izandu garirik.

29. Euskara galarazita, eskolan

- **Erref:** DON-062/035
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:18:27. **Bukatu:** 01:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerra ondoan, euskaraz hitz egitea galarazi zuten eskolan. Anaiari behatz puntetan ematen zioten makilarekin, euskaraz aritzeagatik. Anaia zaharrena gerrara eraman zuten, 18 urte betetzean, derrigortuta; txofer egon zen.

Transkripzioa

-Eta, e, euskera hitz egiteko... ba ez dakit, hitz eitia galarazi...
 -A, bai. Maixuk. Ta maistra ordun etorri zanak.
 -Hori gerra eta gero?
 -Bai. Gerra ondorian.

-Eta zuei esaten zizueten...?
 -Euske... Bai, "habla en castellano". Bueno... bai. Esaiyozu... ne anaiya difuntuari esan bihar! Hua eskolan ordun zan ta /da/... Jarri hola eskuk, ta zeakin jotzen omen zitun, makillakin.
 -Bihatz puntetan, rast?
 -Bai. Euskeraz iten bazuen.
 -Bai, e?
 -Eta erderaz ezer ez, ez zekiyen.
 -Jakin ez, erderaz.
 -Erderaz jakin ez. Ta klaro, ba kuadrilla juntatzen zan ta euskeraz iten. Ta zea, nearrez etxea.
 -Eta hemen, gerran, zure familian ibili zan...
 -Anaiya zaharra.
 -Anai zaharra, gerran?
 -Bai.
 -Eta nun ibili zan?
 -Hemezortzi urtekin eaman zuen. Konpritu zain eondu zian eamateko. Ez dakit ze [...] Bueno, txofer eondu zan, e.
 -Eta nun, nun ibili zan? Nundik? Nora eraman zuten?
 -Oaingo hoik, oian don zea honek. Honek eaman zuen.
 -Bai, baiña nora? Nun ibili zan? Teruel aldi ala...?
 -Bai. Teruelen-ta, hemen, nunahi... zeatikan ez, nola txoferra zan... txoferra hola ibiltzen zan.
 -Orduan derrigortuta, gerrara?
 -Bai, bai. Hemezortzi urte konpritu zain eondu ziela ba!
 -Bestiak libratu zian gaztiak ziralako, ezta?
 -Bai. Anaya bai.
 -Beste anaiyak.
 -Bai, beste anaiya, beste [...] Bestia bai, baiña zaharrena eaman zuen. Santo Tomas egunian hemezortzi urte, ta konpritu zai eondu zian. Hemezortzi urte konpritutakoak, bere kinta, danak eaman zituen, ta hua euki zuen. Hemezortzi urte konpritu zai. Hemezortzi urte konpritu zunian emana zuen. Ta txofer jun zan. Ez zan, frentian ez zan ibili.
 -Eskerrak!
 -Bai. Esaten zuenez bai.

30. Baserria, ganadua eta baratzea

- **Erref:** DON-062/038
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:21:59. **Bukatu:** 01:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Astoa zuten, Katalina. Behorra ere eduki zuten. Gerra aurretik izan zituzten behiak ere, uztarrirako; gero ez. Tomate txikia baina ona izaten zuten baratzean. Maizterrak zirela, itsasoraino iristen ziren baserriko lurak. 2.000 metrorekin erosi zuten etxea.</p>

31. Garraioak: autorik ez

- **Erref:** DON-062/040

- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:24:21. **Bukatu:** 01:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Bideak desberdin zeuden lehen. Autorik ez zen. "Astolomoa" izan zen autoa zuen lehena. Autobusik ere ez zegoen lehen. Kamineroak izaten ziren; orain ezer ez. Bideak garbitzen zituzten. Sutarako ikatza partitzen zaldiarekin ibiltzen ziren. Dirudunak zaldi-karroan ere ezagutu ditu. Astoa lanerako erabiltzen zen.</p>

32. Baserriko tresnak

- **Erref:** DON-062/041
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:27:35. **Bukatu:** 01:29:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Hernanira feriara joaten ziren. Baserriko tresnak Tolosan erosten zituzten normalean: aitzurra, sega... Laia ere erabiltzen zen; hiru lagun, ilaran jarrita, bakoitza bi lairekin. Bai neskak bai mutilak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com